UZKI ETA ONDESTEKO KIRURGIA
(Zainketak eta gomendioak operazioaren ondoren)

1. Hasieran dieta biguna eta zuntz asko duena hartu (fruta, barazkiak eta lekariak) idorreriarik ez izateko. Saia zaitez egunean 6-7 baso-ur edaten.

2. Hurrengo egunetan tenperatura hartu arratsaldeetan, 38ºC edo gehiago baldin baduzu, familiako medikuari galdetu.

3. Ohiko bizimodua egiten hasteko, nola eboluzionatzen duzun ikusi behar da. Familiako medikuari galdetu.

4. Min handia edo iraunkorra baldin baduzu, eta aringarriak hartuta desagertzen ez bada, familiako medikuari galdetu.

5. Ez erabili komuneko paperik.

6. Egunean lau aldiz eserlekuko bainuak hartu ur epelez, batez ere, kaka egin ondoren. Bainua gehienez bost minutukoa izango da, eta, bukatu ondoren, toaila edo ile-lehorgailuarekin lehortu.

7. Ez ikaratu odol edo muki pixka bat botatzen baduzu, pixkanaka-pixkanaka desagertuko da.

8. Uzkitik odol asko botatzen baduzu, galdetu zure medikuari.

9. Operazioaren ondoren hiru egunean kaka egiten ez baduzu, esan medikuari.